

KOSTUEN EGITURA

Atal honetan, gure enpresak edukiko dituen kostu guztien egitura aipatuko dugu, hasierako inbertsioak, hilabeteko kostu finkoak, aldakorrek bereiziz. Aldi beran, gure produktuaren unitate baten produkzio-kostua adieraziko dugu, erabiliko ditugun materialak bereiziz eta hauen prezioa adieraziz.

Garbi dago edonork enpresa bat sortzeko asmoa badu ezinbestekoa dela hasierako inbertsio batzuk egitea lehen pausuak eman ahal izateko. Gure kasua ez da desberdina izango, horregatik, proiektua aurrera atera ahal izateko hasiera batean egin beharko ditugun inbertsioen kostu totalaren aurreikuspen bat egin dugu, taula honen bidez adieraziz:

| HASIERAKO INBERTSIOAK | |
|--|---------------------|
| Ondasuna/Zerbitzua | Prezioa |
| Bi ordenagailu (Alurin Go Start Intel Celeron N4020/8GB/256GB SSD/14") | 209,9€ x 2 = 419,8€ |
| Web gunearen sorrera | 200€ |
| Bigarren eskuko auto bat (Seat Ibiza, 127.000Km) | 6.050€ |
| Patentea | 875€ |
| GUZTIRA | 7544,8€ |

Jarraian, gure produktuaren unitate baten ekoizpenaren kostua adieraziko dugu. Taularen ezker aldean, produktuaren osagailak adierazi ditugu, pantaila, bateria, prozesadorea... Eskuinaldean berriz, adierazitako material edo ondasunen prezioak ageri dira. Taulako azken errenkadan, osagaila guztien prezioak batuz gailuaren ekoizpen-kostu totala adierazi dugu. Esan beharrekoa da ez dela berdina ondasun hauek denda batean erostea, edo enpresa batekin kontaktuan jarri eta elkarte bat sortu ondoren kopuru handietan erostea, izan ere, bigarren modu horretan materialak eskuratzea askoz ere merkeago ateratzen da.

| PRODUKTUAREN EKOIZPENA (unitate 1) | |
|---|--|
| Material/ondasuna | Prezioa |
| Kartoizko kaxa (11x7x3cm) | 0,20€/kaxa |
| Paperezko jarraibideak | (0,01€/orria) 5 orriko jarraibideak → → 0,01€ x 5 = 0,05€ |
| Gailuaren karkasa (ABS plastikoa) | (1,2€/Kg = 0,0012€/g) Karkasaren pisua = 150g → 0,0012€ x 150 = 0,18€ |
| Gomazko botoilak (kautxo) | (1,2€/g) Botoilen pisua guztira = 3g → → 1,2€ x 3g = 3,6€ |
| Prozesadorea | 17€/prozesadorea |
| Plaka nagusia | 11,80€/plaka |
| LED pantaila (4cmx5cm) | 10,5€/pantaila |
| Bateria (Litio ioi) | 8,5€/bateria |
| Produktuaren banaketa | 2€/gailua |
| GUZTIRA | 53,83€ |

Hasierako inbertsioen eta produktuaren ekoizpenaren kostuez gain, edozein enpresak dituen beste 2 kostu mota ditugu: kostu finkoak eta kostu aldakorrak

Hasteko, gure enpresaren kostu finkoak aipatuko ditugu. Ez aldatzeaz gain, urte osan zehar kostu hauek hileroko ordaindu behar dira, horregatik, hilabete batean edukiko genituzkeen kostu finkoak kalkulatu ditugu, modu honetara, urte osoko aurrekontua egin nahiko bagenu hileko kostua 12 aldiz biderkatu beharko genuke soilik. Hasierako inbertsioen taulan bezala, ezkerreko zutabearen ordaintzen ari garen ondasun edo zerbitzua adieraziko dugu eta eskuinekoan prezioa.

| KOSTU FINKOAK | |
|----------------------|--|
| Ondasuna/Zerbitzua | Prezioa |
| UGGASAREN Lokala | 90€/hileko |
| Soldatak | 1500€/pertsona → 1500 x 4 = 6000€/hileko |
| Web-gunea mantentzea | 70€/hileko |
| Kotxearen segurua | 37,5€/hileko |
| GUZTIRA | 6297,5€/hileko |

Jarraian, gure enpresak edukiko dituen kostu aldakorrak azalduko ditugu. Hauek, finkoak ez bezala, aldaketak ahal dituzte eduki oporren edo langile baten bajaren ondorio bezala. Nahiz eta urte osoan zehar ez ditugun hilabete guztietan ordaindu behar izango, aurrekontuak egiteko kostu hauek ordaintzen ditugun hilabete bat hartu dugu kontuan. Datuak taulan adierazteko, kostu finkoak adierazteko erabili dugun formatua jarraitu dugu:

| KOSTU ALDAKORRAK | |
|--|--|
| Ondasuna/Zerbitzua | Prezioa |
| Produktuaren ekoizpena (150gailu/hileko) | 53,83€ → $53,83€ \times 150 = 8.074,5€/hileko$ |
| Maileguaren itzulketa (10.000€) | 193,33€/hileko (5 urtez) |
| GUZTIRA | 8.267,83€/hileko |

Bukatzeko, gure enpresaren hilabete bateko kostuen aurreikuspena egingo dugu, kostu finkoak eta aldakorrak batuz.

| HILABETEKO KOSTUAK | |
|---------------------------|--------------------------|
| Kostu mota | Kostua |
| Kostu finkoak | 6297,5€/hileko |
| Kostu aldakorrak | 8.267,83€/hileko |
| GUZTIRA | 14.565,33€/hileko |